



BIRIKETAKO TRONBOENBOLISMOA

duten pazienteentzako informazioa

- Biriketako tronboenbolismoa izan duzu, eta, horregatik, egun batzuk eman behar izan dituzu gure ospitalean ingresatuta; beraz, zure gaixotasunaren berri emango dizugu hurrengo lerroetan.
- Gaixotasun hau – biriketako enbolia ere esaten zaio – odolbildu bat edo batzuk (tronbosia) odolaren isuriak eraman, eta biriketako zainetan trabatuta gelditzen direnean gertatzen da, hau da, ibaiak daraman enborra zubi-begiren batean trabatuta gelditu litekeen modu bertsuan.
- Odolbildu horiek, gehienetan, hanketako zainetan sortzen dira, eta handik datoz. Sarritan, biriketako lehen sintomen ondoren, odolbildu gehiago egoten dira hanketan oraindik, askatu eta odolaren isurian “bidaiaitzeko” zain. Hori dela-eta, lehen egunetan ohetik altxatzea ere debekatu dizugu, tratamendua erabat eraginkorra izan arte.
- Gehienetan erabat sendatzen da, eta ez du inolako ondoriorik izaten, baina dudarik badago, gammagrafia izeneko proba berezia egingo dizugu zenbait hilabete tratamenduan egon ondoren.
- Jarri dizugun tratamendua koagulazioaren kontrako substantzia bat da, odola hain “lodia” ez izateko, eta odolbildu gutxiago sortu daitezen. Lehen egunetan injekzio bidez jartzen da, eta hortik aurrera pastilletan. Tratamenduan eman beharreko denbora aldatu egiten da kasu batetik bestera, baina gehienetan 3 hilabete behar izaten dira gutxienez.
- Denboraldi horretan SINTRONari buruz informatzeko dokumentuan ematen diren gomendioak zehatz-mehatz bete behar dituzu; bestela, konplikazio handiak izan ditzakezu.